

ZER IRIZPIDE IZAN BEHAR DIREN KONTUAN KIROL KLUBEI ETA KIROL ELKARTEEI IZENA EMATERAKOAN EKAINAREN 22KO 163/2010 DEKRETUAREN ARABERA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundeen Erregistroan inskribatu nahi duten kirol-klub eta -elkarteen izenek argi adierazi beharko dute zein kirol-erakunde mota diren, bat etorriko dira beraien estatutueta helburuekin eta ez dute sortuko okerrik edo nahasterik aipatu erakundeen jardueraz edo izaeraz.
2. Kirol-klub eta -elkarteen izenek bi elementu hauek izan beharko dituzte:
 - a) Asoziazio-modalitatea eta kirol-izaera (kirol-kluba edo kirol-elkartea).
 - b) Indar bereizlea duen izena, erakundea nabarmentzen duena. Izendapen edo izen hori subjektiboa edo objektiboa izan daiteke, eta erakundea identifikatzeko balio behar du.
3. 163/2010 Dekretuaren 11.2 artikulua araberan "kirol" hitzaren ordeza dena delako kirol-modalitatea aipatu ahal izango da.
4. Kirol-klubaren edo kirol-elkartearen izenean kirol-modalitatea bat baino gehiago aipa daitezke.
5. Kirol-klubaren edo kirol-elkartearen izenean agertuko da asoziazio-modalitatea edo horren laburtzapena. Ez da onartuko, asoziazio-modalitate gisa, "Kirol Taldea" aipamena, hauek direnez euskaraz idatzitako asoziazio-modalitateak: "Kirol Kluba" (Club Deportivo) eta "Kirol Elkartea" (Agrupación Deportiva).
6. Gainera, Kirol-kluben eta-elkarteen izenek haiek identifikatzen lagunduko duen indar bereizlea izan behar dutenez, ez dira onartuko termino generikoez osaturiko izenak, ezta ohikoak eta arruntak bihurtutakoak ere.
7. Kirol-elkartearen izenak ez du zertan bat etorri jatorrizko erakundearen izenarekin, eta izenei buruz 163/2010 Dekretuan ezarritako mugak errespetatu beharko ditu.
8. Izenek ezin izango dute eduki balio komunei buruzko espresiorik, ez eta interes kolektibo edo korporatibodun ordezkartza-erakundeekiko edo erakunde publikoekiko nahasterik sor dezakeenik ere (adibidez: kirol-federazioak, elkargo profesionalak, sindikatuak etabar).
9. Honako izen hauek ez dira onartuko:

- a) Bakarrik izen bereziz edo izen-abizenez osaturikoak, salbu eta bat baldin badator inskripzioa eskatu duen erakundearen izenean edo haren sortzaileetako baten izenean Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan erregistratutako merkataritza marka edo izen batekin.
 - b) Beste entitate edo erakunde batekin edo hirugarren batzuen akronimo edo marka batekin lotura argia eta nabaria duten izenak, salbu eta literalki bat baldin badatoz inskripzioa eskatu duen entitatearen izenean edo haren sortzaileetako baten izenean Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan erregistratutako marka edo izen komertzial batekin.
 - c) "Ofiziala" hitza edo "Nazionala", "Estatuko", "Erkidegoko", "Probintziako" edo "Udal" hitzak edo antzekoak erabiltzen dituztenak, baldin eta entitatearen ofizialtasunari buruzko zalantzarik sortarazten badute.
 - d) Urriaren 15eko 10/1990 Kirol Legearen indarrez beste erakunde batzuei esleitutako izen olinpikoak edo bestelakoak erabiltzen dituztenak.
 - e) Ekainaren 11ko Euskadiko Kirolari buruzko 14/1998 Legearen indarrez beste organo edo organismo batzuei esleitutako izenak erabiltzen dituztenak.
 - f) Izen edo marka komertzial nabari edo entzutetsu bat erabiltzen dutenak —nahiz eta ez egon inskribatuta Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan—, salbu eta horretarako baimena ematen badu dena delako izenaren titularrak.
10. Kirol-erakunde baten izenean, marka bat edo merkataritza-produktu edo antzekoak aipatzen badira, titularraren baimena erantsi beharko zaio inskripzio-eskabideari.
11. Kirol-erakunde baten izenak ezingo du eduki barruan beste entitate publiko edo pribatu baten titulartasuneko izenik, salbu eta aldeaz aurreko baimena badu horretarako.
12. Ez da onartuko honako hauen izena eskusiboki darabilen izenik: udalerrria, lurralde historikoa, Autonomia Erkidegoa edo beste edozein lurralde-entitate. Dena delako lurralde-entitatearen izenaz ez jabetzeko, hura erabiltzea onartuko da baldin eta harekin batera agertzen badira kirol-modalitatearen aipamena eta taldea identifikatzeko indar berezilea duen izena.
13. Izenak ezin du okerrik sortu Euskal Autonomia Erkidegoko Kirol Erakundearen Erregistroan inskribaturiko beste erakundearen identitateari buruz. Identitatea dagoela ulertuko da, izenen arteko erabateko identitatea dagoenean ez ezik, nahasketa sortzen denean honako hauek direla eta:
- a) Hitz berak erabiltzen direnean hurrenkera, genero edo numero ezberdinekin.

- b) Hitz berak erabiltzen direnean identifikatzeko balio ez duten honako elementu hauekin: preposizioak, juntagailuak, puntuazio-markak, artikulua edo antzekoak.
 - c) Izen berezi bera erabiltzen bada, kirol-modalitatearen aipamena erantsita edo kenduta.
 - d) Izen berezi bera erabili, eta honako hitz hauek eranstean badira: "Racing", "Athletic", "Unión", "Atlético", "Real" eta antzekoak.
 - e) Inskribaturiko beste kirol-erakunde baten izena beste hizkuntza batean erabiltzen bada, nahiz eta berdintasun fonetikorik ez egon.
 - f) Hitz ezberdinak izan arren, esanahi berekoak direnean, edo fonetikoki antzekoak.
 - g) Izen bera erabiltzen denean, zifra bat edo gehiago erantsita.
14. Ez da onartuko legeen edo balio zein printzipioen aurkako izenik.
15. Ez da onartuko pertsonen funtsezko eskubideak urra litzakeen izenik.
16. Izenak autonomia-erkidegoaren bi hizkuntzetako edozeinetan idatz daitezke, edo bi hizkuntzetan. Bi hizkuntzen arteko nahasketaz sorturikoa ere izan daiteke.
17. Izen bereziari dagokionez, aipaturiko bi hizkuntza horietan ez ezik, beste batean ere idatzi daiteke; baina kirol-modalitateari eta asoziazio-modalitateari dagokienez, ez: horiek erkidegoko bi hizkuntzetako batean idatzi beharko dira.
18. Izenek autonomia-erkidegoaren hizkuntza ofizialen alfabetoetako letrak erabili ahal izango dituzte bakarrik.
19. Izenean, zenbaki arabiar edo erromatarak sartu ahal izango dira, baina, halakoetan, izena ezin izango da osatu zenbaki edo digitu hutsez.
20. Siglak edo laburtzapenak ezin izango dira sartu izen bereziaren barruan; bakarrik onartuko dira asoziazio-modalitateen siglak (adibidez: KK edo KE).
21. Klubaren edo elkartearen izena onartua izan dadin, honako hauek hartu behar dira kontuan:
- a) Taldea errazago inskribatuko da baldin eta izen berezia indar bereizlea duen hitz bakarrez osatua badago, ezen ez inskribaturik dagoen beste batekin bat etor badaiteke edo haren antzekoa bada. Indar bereizlea duen izenean edo izen nagusian hitz bat baino gehiago erabiltzea aholkatzen da.
 - b) Ez erabili hitz generikorik izen bereizle edo nagusi bezala.
 - c) Ez erabili marka nabari edo entzutetsuekin lotu daitezkeen izen nagusi edo bereizlerik.